



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2019ko irailaren 10a

11. ZK.

A U R K I B I D E A

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, Ezkaba mendiko lursail batzuk ixte aldera Defentsa Ministerioak aurkeztu duen ekimenari buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (3. or.).
- Galdera, Nafarroan irakaskuntza publikoaren kalitatea hobetzeko ituna bultzatze eta garatze aldera Hezkuntzako kontseilariak hartu dituen neurriei buruzkoa. Jorge Aguirre Oviedo jaunak egin du (5. or.).
- Galdera, Nafarroan irakaskuntza publikoaren kalitatea hobetzeko itunean 2019-2020 ikasturteari begira aurreikusitako neurrien garapen eta aplikazio mailari buruzkoa. María Luisa De Simón Caballero andreak egin du (5. or.).
- Galdera, jakiteko ea Nafarroako Gobernuak ikasle-ratioko diskriminazioa mantenduko duen eremu ez euskaldunean D ereduko lerroak irekitzeko, ikasle horiei joan-etorrien gastuak eta jantokiaren gastua ordainduta. Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea jaunak egin du (6. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuko Kontu-hartze eta Kontabilitate Zuzendaritza Nagusia sortzeko arrazoiei eta horren eginkizunei buruzkoa. Marta Álvarez Alonso andreak egin du (7. or.).
- Galdera, familiei presio fiskala arintzeko eta enpresa-jarduerari atxikitako ondasun pertsonalen gaineko zergak kentzeko planari buruzkoa. María Jesús Valdemoros Erro andreak egin du (7. or.).
- Galdera, jakiteko ea Nafarroako Gobernuko lehendakariak zergatik uste duen Nafarroako Toki Administrazioaren Erreformatarako Legea 2021eko abendura arte luzatu beharko litzatekeela. José Suárez Benito jaunak egin du (8. or.).
- Galdera, Nafarroan bakarrik dauden adingabe atzerritarrekiko bere esku-hartzea dela-eta Nafarroako Gobernuak egiten duen balorazioari buruzkoa. Jorge Esparza Garrido jaunak egin du (8. or.).
- Galdera, jakiteko ea noiz indargabetuko den Nafarroako administrazio publikoetan, beren erakunde publikoetan eta menpeko dituzten zuzenbide publikoko entitateetan euskararen erabilera arautzen duen 103/2017 Foru Dekretua. José Javier Esparza Abaurrea jaunak egin du (9. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuak gradua ordaintzeko asmoari, ordaintzen hasteko datari eta ordainketak egiten duen diru-kopuruari buruzkoa. Domingo González Martínez jaunak egin du (9. or.).
- Galdera, eraso informatikoari eta Nafarroako Gobernuak aplikatu zuen konponbideari buruzkoa. Ainhoa Unzu Gárate andreak egin du (10. or.).

- Galdera, enplegu plan bat bultzatze aldera Nafarroako Gobernuko lehendakariak aurrena garatuko dituen neurriei buruzkoa. Ainhoa Unzu Gárate andreak egin du (11. or.).
- Galdera, segurtasunaren arloko lankidetzeta eta koordinazio instituzionalari dagokienez Nafarroako Gobernuak baliatuko duen irizpideari buruzkoa. María Inmaculada Jurío Macaya andreak egin du (11. or.).
- Galdera, klimaren alde irailaren 27rako deitutako nazioarteko greba dela-eta Nafarroako Gobernuak hartuko duen jarrerari buruzkoa. Ainhoa Aznárez Igarza andreak egin du (12. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuaren lehentasun politikoei buruzkoa. Ramón Alzórriz Goñi jaunak egin du (12. or.).
- Galdera, Gizain-Gizarte zerbitzu publikoak kudeatzeko Nafarroako Fundazioari buruzkoa. Isabel Aramburu Bergua andreak egin du (13. or.).
- Galdera, Skolae programa bultzatze eta garatze aldera Hezkuntzako kontseilariak hartutako neurriei buruzkoa. María Roncesvalles Solana Arana andreak egin du (13. or.).
- Galdera, jakiteko zer neurri hartuko dituen Nafarroako Gobernuak ikastetxe erlijiosoetan sexu-gehiegikeriagatik aurkeztutako salaketak direla-eta. Mikel Buil García jaunak egin du (14. or.).
- Galdera, Zidakos ibaiaren uztailaren 8ko uraldiak kaltetutako herriak hondamendi eremu deklaratzeko egiten ari diren zuzemenei buruzkoa. Uxue Barkos Berruezo andreak egin du (14. or.).
- Galdera, jakiteko zer ildo lehenetsiko diren zerga eta aurrekontu arloetan. Bakartxo Ruiz Jaso andreak egin du (15. or.).
- Galdera, Espainiako errege-erreginak Vianako Printzea Kulturaren Saria ematera gonbidatzeari buruzkoa. José Javier Esparza Abaurrea jaunak egin du (15. or.).
- Galdera, irakaskuntza publikoaren kalitatea hobetzeko ituneko baldintzak betetzeari buruzkoa. Marisa De Simón Caballero andreak egin du (16. or.).

F saila:
GALDERAK

Galdera, Ezkaba mendiko lursail batzuk ixte aldera Defentsa Ministerioak aurkeztu duen ekimenari buruzkoa.

ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko irailaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkeztutako galdera, Ezkaba mendiko lursail batzuk ixte aldera Defentsa Ministerioak aurkeztu duen ekimenari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2019ko irailaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Adolfo Araiz Flamarique jaunak honako ahozko galdera hau aurkezten dio Legebiltzarreko Mahaiari, izapidetu dezan:

Mendi eta Eskalada Kirolen Napar Federakundeak, zeinak 10.000 pertsona baino gehiago biltzen baititu, Ezkaba mendiko lursail batzuk ixte aldera Defentsa Ministerioak aurkeztu duen ekimena salatu du.

Bere idazkian entitate horrek honako hau dio:

“Orain dela gutxi jakin izan denez, Defentsa Ministerioak (3. zenbakiko obra-komandantziak) Berribeitiko Udalarai Ezkaba mendiko baso-eremu bat ixteko proiektu bat aurkeztu dio, tiro-eremuaren segurtasun-eremua handitzea helburu. Proiektuak honako ezaugarri hauek ditu:

– Luzera 4.550 m

– Azalera 52 Ha

– Ezaugarriak: ehiza-itxitura, 1,5 metroko luzerako altzairu galvanizatuzko zutoinekin eta informazio-seinaleekin. Orobat aurreikusten da 3

metroko zabalerako pasabide bat garbitzea sasi-tzan.

Itxitura hori mendiaren hego-ekialdeko hegalean eginen litzateke, katastroan egun Aitzoingo Kontzejuaren herri-lurrak diren lursail batzuk itxita (Ministerioak berarenak direla dio, iragan mendeko berrogeiko hamarkadako desjabetze baten aitzakian).

Itxitura horrek Aitzoingo kuartelaren ondoko tiro-eremua eta Alfonso XII.a Gotorlekua batuko litzuzke.”

Eta orobat dio:

“Ministerioak mendian egin nahi duen itxituraren ezaugarrien azaleko azterketa bat egin ez gero, Maniobra eta Tiro Poligonoa izenekoa koordenadetatik abiatuta, nabarmentzekoa da horrek izanen lukeen inpaktua, bertako faunaren mugikortasunean eta, bereziki, ibilgailuen (suteen aurkako larrialdiak, basozaintza eta ingurumenaren zaintza), bizikleten eta pertsonen zirkulazio-sarean.

Itxitura-proposamena etorkizuneko Ezkaba Parkearen parte bat izanen den basabide-sareari gainezarriz (...) ondorioztatzen da ezen orain dela gutxi sortutako ibilbide-sareak aldaketa nabarmenak pairatuko litzuzkeela (GR 225 Ezkabako lhesak barne):

Mendiko bideen sarea

– GR220 D bideak ixtea, 9 540 metro.

– GR 220, 80 metro.

– GR 225, 25 metro.

– SL-NA172 940 metro.

Ikusten denez, honako hauek ukitzen ditu: bi ibilbide Handi, Iruñerriko Bira GR 220 eta Ezkabako lhesa eta GR 225, bai eta Ezkabaren perimetroan zehar hegal-ereditik doan NA 172- Tokiko

Basabidea ere, zeinak muntako eginkizuna baitauka suteak kontrolatzeari begira.

Mendi-bizikleten ibilbide-sarea

Ibilbideak moztea

-R2 82 metro

-R5 540 metro

-R3 470 metro

Handia izanen litzateke nazioartean homologatutako ibilbide horien gaineko eragina. Ondorioa da, hortaz, Defentsa Ministerioak proiektatutako itxitura paratzeak nabarmen eraginen liokeela Ezkaba mendiko ibilbide-sarearen hego-mendebaldeko sektoreari, larriki konprometituko bailuke Mendiaren beharrianak taxutze eta harmonizatze aldera sortutako ibilbideen diseinu orokorra.”

Federazioaren idazkiak ondorioztatzen du Defentsa Ministerioaren ekimena ez litzatekeela onetsi beharko.

“(…) izan ere, bateraezinak dira proiektatutako itxitura eta etorkizuneko parkean proposatutako erabilerak eta jarduerak:

– itxiturak ez dauka tokiko ekonomia bultzatzen duen eta sute-arriskuak minimizatuko lituzkeen oihanpearen artzain-tratamendua bilatzen duen abere-asmorik.

– itxiturak Ezkabako ibilbide-sarean sendotutako ibilbideak eta basabideak mozten ditu, halako moduan non espazio horren jolas- eta kirol-asmoa

konprometitzen baitu. Oinezkoen edo txirridularien basabide eta pista horiek aldatzeak orobat ekarriko luke trazadurak askoz ere luzeagoak eta desnibel handiagokoak izatea, halako moduan non hainbat kolektiboren erabilera eta gozamen potentziala konplikatuta eta gutxituta baitezateke.

– Ezkaba Mendiko publiko-dentsitate handiak are beharrezkoagoa egiten du ibilbide eta basabide balizatu eta homologatuak egotea; horrek, zirkulazioa normalizatzen du eta erabiltzaileak mendiaren beste alderdi batzuetatik sakabanatzea ekiditen du, eta ondorio positiboak ditu segurtasunean, erosioa gutxitzean, eta abar.

– itxiturak ez ditu errazten eta hobetzen Parkearen proiektuan ezarri beharreko suteen aurkako neurriak, hain galdatuak direnak bere baso-izaeratik eta bizitokietatik hurbil egoteagatik bereziki sentibera den espazio batean.”

Hori guztia ikusita, honako hau galdetzen diot Gobernuari, ahoz erantzun dezan:

Defentsa Ministerioak aurkeztutako proiektuak zuzenean eragiten die Udalez gaindiko Plan Sektorialaren aurreikuspenei, eta Ezkaba Mendian 52 hektarea pribatizatzea ekarriko luke praktikan. Nafarroako Gobernuak zer akordio edo ekintza hartuko du proiektu horrek aurrera egitea ekiditeko?

Iruñean, 2019ko irailaren 3an

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

Galdera, Nafarroan irakaskuntza publikoaren kalitatea hobetzeko ituna bultzatze eta garatze aldera Hezkuntzako kontseilariak hartu dituen neurriei buruzkoa.

JORGE AGUIRRE OVIEDO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko irailaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Jorge Aguirre Oviedo jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroan irakaskuntza publikoaren kalitatea hobetzeko ituna bultzatze eta garatze aldera Hezkuntzako kontseilariak hartu dituen neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2019ko irailaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikita dagoen Jorge Aguirre Oviedo jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Hezkuntzako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Karguaz jabetu denez geroztik, Hezkuntzako kontseilariak zer neurri hartu du Nafarroan irakaskuntza publikoaren kalitatea hobetzeko ituna bultzatzeko eta garatzeko?

Iruñean, 2019ko irailaren 4an

Foru parlamentaria: Jorge Aguirre Oviedo

Galdera, Nafarroan irakaskuntza publikoaren kalitatea hobetzeko itunean 2019-2020 ikasturteari begira aurreikusitako neurrien garapen eta aplikazio mailari buruzkoa.

MARÍA LUISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko irailaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Luisa De Simón Caballero andreak aurkeztutako galdera, Nafarroan irakaskuntza publikoaren kalitatea hobetzeko itunean 2019-2020 ikasturteari begira aurreikusitako neurrien garapen eta aplikazio mailari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2019ko irailaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

tzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera egiten du, Hezkuntzako kontseilari Carlos Gimeno jaunak parlamentu honen Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

2018ko abuztuaren 24an, Nafarroako irakaskuntza publikoaren kalitatea hobetzeko 2018-2022 urteetarako ituna sinatu zen. Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuak sinatutako itun horrek irakaskuntza publikoko sindikatu gehien babesa eta sinadura jaso zituen: LAB, STEILAS, AFAPNA, ANPE CCOO eta UGT.

Itunak irakasleentzako eta ikastetxeentzako lan-hobekuntzak ezartzen ditu; zehazki, 2019-2020 ikasturtean aplikatu beharreko neurriak, jarraipen-batzorde bat sortzeaz gain.

Ahozko galdera, Nafarroan irakaskuntza publikoaren kalitatea hobetzeko itunean 2019-2020 ikasturteari begira aurreikusitako neurrien garapen eta aplikazio mailari buruzkoa eta hori dela-

GALDERAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra Talde Mistoko parlamentari Marisa de Simón Caballero andreak, Legebil-

eta jarraipen-batzordeak eginen dituen bileren gaineko aurreikuspenei buruzkoa.

Iruñean, 2019ko irailaren 4an

Foru parlamentaria: Marisa de Simón Caballero

Galdera, jakiteko ea Nafarroako Gobernuak ikasle-ratioko diskriminazioa mantenduko duen eremu ez euskaldunean D ereduko lerroak irekitzeko, ikasle horiei joan-etorrien gastuak eta jantokiaren gastua ordainduta.

CARLOS PÉREZ-NIEVAS LÓPEZ DE GOICOECHEA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko irailaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko ea Nafarroako Gobernuak ikasle-ratioko diskriminazioa mantenduko duen eremu ez euskaldunean D ereduko lerroak irekitzeko, ikasle horiei joan-etorrien gastuak eta jantokiaren gastua ordainduta.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2019ko irailaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea jaunak honako galdera hau aurkeztzen du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Gobernu honek ikasle-ratioko diskriminazioa mantenduko al du D ereduko lerroak eremu ez-euskaldunean irekitzeko, ikasle horiei joan-etorrien eta jantokiaren gastuak ordainduta?

Iruñean, 2019ko irailaren 5ean

Foru parlamentaria: Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea

Galdera, Nafarroako Gobernuko Kontu-hartze eta Kontabilitate Zuzendaritza Nagusia sortzeko arrazoiei eta horren eginkizunei buruzkoa.

MARTA ÁLVAREZ ALONSO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko irailaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Marta Álvarez Alonso andreak aurkeztutako galdera, Nafarroako Gobernuko Kontu-hartze eta Kontabilitate Zuzendaritza Nagusia sortzeko arrazoiei eta horren eginkizunei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2019ko irailaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Marta Álvarez Alonso andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zergatik sortu da Nafarroako Gobernuko Kontu-hartze eta Kontabilitate Zuzendaritza Nagusia? zer eginkizun izanen ditu?

Iruñean, 2019ko irailaren 5ean

Foru parlamentaria: Marta Álvarez Alonso

Galdera, familiei presio fiskala arintzeko eta enpresa-jarduerari atxikitako ondasun pertsonalen gaineko zergak kentzeko planari buruzkoa.

MARÍA JESÚS VALDEMOROS ERRO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko irailaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Jesús Valdemoros Erro andreak aurkeztutako galdera, familiei presio fiskala arintzeko eta enpresa-jarduerari atxikitako ondasun pertsonalen gaineko zergak kentzeko planari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2019ko irailaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen María Jesús Valdemoros Erro andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zer plan darabilzu familiei presio fiskala arintzeko eta enpresa-jarduerari atxikitako ondasun pertsonalen gaineko zergak kentzeko?

Iruñean, 2019ko irailaren 5ean

Foru parlamentaria: María Jesús Valdemoros Erro

Galdera, jakiteko ea Nafarroako Gobernuko lehendakariak zergatik uste duen Nafarroako Toki Administrazioaren Erreformatarako Legea 2021eko abendura arte luzatu beharko litzatekeela.

JOSÉ SUÁREZ BENITO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko irailaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Suárez Benito jaunak aurkeztutako galdera, jakitekoa ea Nafarroako Gobernuko lehendakariak zergatik uste duen Nafarroako Toki Administrazioaren Erreformatarako Legea 2021eko abendura arte luzatu beharko litzatekeela.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2019ko irailaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari José Suárez Benito jaunak honako galdera hau aurkeztzen du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuko lehendakari Chivite andrea zergatik igaro da hilabete gutxi batzuetan Nafarroako Toki Administrazioaren Erreformatarako Legeari osoko zuzenketa bat aurkeztetik 2021eko abendura arteko luzapen bat beharrezkoa dela pentsatzera?

Iruñean, 2019ko irailaren 4an

Foru parlamentaria: José Suárez Benito

Galdera, Nafarroan bakarrik dauden adingabe atzerritarrekiko bere eskuhartzea dela-eta Nafarroako Gobernuak egiten duen balorazioari buruzkoa.

JORGE ESPARZA GARRIDO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko irailaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Jorge Esparza Garrido jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroan bakarrik dauden adingabe atzerritarrekiko bere eskuhartzea dela-eta Nafarroako Gobernuak egiten duen balorazioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2019ko irailaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Jorge Esparza Garrido jaunak honako galdera hau aurkeztzen du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak zer balorazio egiten du Nafarroan bakarrik dauden adingabe atzerritarrekiko bere eskuhartzeari dagokionez?

Iruñean, 2019ko irailaren 4an

Foru parlamentaria: Jorge Esparza Garrido

Galdera, jakiteko ea noiz indargabetuko den Nafarroako administrazio publikoetan, beren erakunde publikoetan eta menpeko dituzten zuzenbide publikoko entitateetan euskararen erabilera arautzen duen 103/2017 Foru Dekretua.

JOSÉ JAVIER ESPARZA ABAURREA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko irailaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Javier Esparza Abaurrea jaunak aurkeztutako galdera, jakitekoa ea noiz indargabetuko den Nafarroako administrazio publikoetan, beren erakunde publikoetan eta menpeko dituzten zuzenbide publikoko entitateetan euskararen erabilera arautzen duen 103/2017 Foru Dekretua.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2019ko irailaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari José Javier Esparza Abaurrea jaunak honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuako lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Noiz indargabetuko duzu Nafarroako administrazio publikoetan, beren erakunde publikoetan eta menpeko dituzten zuzenbide publikoko entitateetan euskararen erabilera arautzen duen 103/2017 Foru Dekretua, euskararik ez dakiten nafar gehienak ez diskriminatzearen Administrazioan sartzeari begira?

Iruñean, 2019ko irailaren 4an

Foru parlamentaria: José Javier Esparza Abaurrea

Galdera, Nafarroako Gobernuak gradua ordaintzeko asmoari, ordaintzen hasteko datari eta ordainketak egiten duen diru-kopuruari buruzkoa.

DOMINGO GONZÁLEZ MARTÍNEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko irailaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Domingo González Martínez jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Gobernuak gradua ordaintzeko asmoari, ordaintzen hasteko datari eta ordainketak egiten duen diru-kopuruari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2019ko irailaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Txomin González Martínezek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak irailaren 12ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

2019ko ekainaren 20an, Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak aldi baterako langileek gradua kobratzeari buruzko epaia eman zuen, halakorik kobratzetik bazter baitzeuden. Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak aintzat hartu du administrazio-kontratudun guztiak pairatzen ari ziren desberdintasun-egoera larri hori amaiaraztea bilatzen zuen erreklamazio hori, eta bere epaian honako hau dio:

“... afera honetan ez dago inolako ‘arrazoi objektiborik’, esparru-akordioko 1. apartatuko 4. klausulari dagokionez, justifikatzen duenik bazter uztea auzi nagusian eztabaidagai den ordainsari-osagarrirako eskubidea jasotzeko behar den zerbitzualdia bete duten administrazio-kontratudunak”.

Iruñeko Administrazioarekiko Auzien 1. Epaitegiak ere administrazio-kontratudunek gradua erreklamatzeko aldera aurkeztutako hainbat demanda ebatzi ditu, demandatzaileen alde ebatzi ere.

Administrazioen batek ere, epaiak ikusita, administrazio-kontratudunei gradua ordaintzea erabaki du. Hori dela-eta, parlamentari naizen honek hauxe galdetzen dut:

Nafarroako Gobernuak ba al du gradua ordaintzeko asmorik? Hala baldin bada, noiz hasiko da gradua ordaintzen? zenbateko diru-kopurua egiten du horrek?

Iruñean, 2019ko irailaren 5ean

Foru parlamentaria: Txomin González Martínez

Galdera, eraso informatikoari eta Nafarroako Gobernuak aplikatu zuen konponbideari buruzkoa.

AINHOA UNZU GÁRATE ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko irailaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ainhoa Unzu Gárate andreak aurkeztutako galdera, eraso informatikoari eta Nafarroako Gobernuak aplikatu zuen konponbideari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2019ko irailaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Ainhoa Unzu Gárate andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Eraso informatiko bat zela medio, abuztuaren 24ko eta 25eko asteburuan Nafarroako Gobernuak bertan behera utzi behar izan zuen Interneten bidezko izapideak NANaren gehi pasahitzaren bidez egin ahal izatea.

Zertan zetzan eraso informatikoa eta zer konponbide aplikatu zuen Nafarroako Gobernuak?

Iruñean, 2019ko irailaren 5ean

Foru parlamentaria: Ainhoa Unzu Garate

Galdera, enplegu plan bat bultzatze aldera Nafarroako Gobernuko lehendakariak aurrena garatuko dituen neurriei buruzkoa.

AINHOA UNZU GÁRATE ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko irailaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ainhoa Unzu Gárate andreak aurkeztutako galdera, enplegu plan bat bultzatze aldera Nafarroako Gobernuko lehendakariak aurrena garatuko dituen neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2019ko irailaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Ainhoa Unzu Gárate andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuko lehendakari María Chiviteri, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuko lehendakari zaren aldetik, zeintzuk izanen dira enplegu plan bat bultzatze aldera aurrena garatuko dituzun neurriak?

Iruñean, 2019ko irailaren 5ean

Foru parlamentaria: Ainhoa Unzu Garate

Galdera, segurtasunaren arloko lankidetzeta eta koordinazio instituzionalari dagokienez Nafarroako Gobernuak baliatuko duen irizpideari buruzkoa.

MARÍA INMACULADA JURÍO MACAYA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko irailaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Inmaculada Jurío Macaya andreak aurkeztutako galdera, segurtasunaren arloko lankidetzeta eta koordinazio instituzionalari dagokienez Nafarroako Gobernuak baliatuko duen irizpideari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2019ko irailaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikita dagoen Inma Jurio Macaya andreak, Legebiltzarreko Erregelamendua ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Lehendakarietzako, Berdintasuneko, Funtzio Publiko eta Barneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak zer irizpide baliatuko du segurtasunaren arloko lankidetzeta eta koordinazio instituzionalari dagokienez?

Iruñean, 2019ko irailaren 5ean

Foru parlamentaria: Inmaculada Jurio Macaya

Galdera, klimaren alde irailaren 27rako deitutako nazioarteko greba dela-eta Nafarroako Gobernuak hartuko duen jarrerari buruzkoa.

AINHOA AZNÁREZ IGARZA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko irailaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ainhoa Aznárez Igarza andreak aurkeztutako galdera, klimaren alde irailaren 27rako deitutako nazioarteko greba dela-eta Nafarroako Gobernuak hartuko duen jarrerari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2019ko irailaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteari atxikitako foru parlamentari Ainhoa Aznárez Igarzak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuarekin bat, honako galdera hau aurkeztu du, hurrengo Osoko Bilkuran Nafarroako Gobernuko Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak ahoz erantzun dezan.

Planetak bizi duen larrialdi klimatikoa ikusita, Nafarroako Gobernuak zer jarrera hartuko du irailaren 27rako klimaren alde deitutako nazioarteko greba dela-eta?

Iruñean, 2019ko irailaren 5ean

Foru parlamentaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Galdera, Nafarroako Gobernuaren lehentasun politikoei buruzkoa.

RAMÓN ALZÓRRIZ GOÑI JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko irailaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ramón Alzórriz Goñi jaunak aurkeztutako gaurkotasan handiko galdera, Nafarroako Gobernuaren lehentasun politikoei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2019ko irailaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioaren eledun Ramón Alzórriz Goñik, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuko lehendakari María Chivitek Osoko Bilkuran ahoz erantzuteko.

Zeintzuk dira zure gobernuaren lehentasun politikoak?

Iruñean, 2019ko irailaren 5ean

Foru parlamentaria: Ramón Alzórriz Goñi

Galdera, Gizain-Gizarte zerbitzu publikoak kudeatzeko Nafarroako Fundazioari buruzkoa.

ISABEL ARAMBURU BERGUA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko irailaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Isabel Aramburu Bergua andreak aurkeztutako galdera, Gizain-Gizarte zerbitzu publikoak kudeatzeko Nafarroako Fundazioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2019ko irailaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioko kide Isabel Aranburu Bergua andreak, Legebiltzarreko Erre-

gelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernu Eskubide Sozialetako kontseilariak irailaren 12ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak GIZAIN-Gizarte zerbitzu publikoak kudeatzeko Nafarroako Fundazioa sortu zuen aurtengo urtarrilaren 10ean, publiko bihurtzen joateko zenbait zerbitzu; zehazki, Tuterako eta Lizarrako Gizarte Zerbitzuen zentroak, Adingabekoentzako Behaketa eta Harrera zentroak eta Gazteentzako Eguneko Zentroa.

Zerbitzu horiek arian-arian hartzea erabaki zenez, honako hau jakin nahi dut:

Nola ari da egiten fundazioa abian jartzeko prozesua? noizko aurreikusten da zerbitzu horiek guztiak bere gain hartzea?

Iruñean, 2019ko irailaren 5ean

Foru parlamentaria: Isabel Aranburu Bergua

Galdera, Skolae programa bultzatze eta garatze aldera Hezkuntzako kontseilariak hartutako neurriei buruzkoa.

MARÍA RONCESVALLES SOLANA ARANA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko irailaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Roncesvalles Solana Arana andreak aurkeztutako galdera, Skolae programa bultzatze eta garatze aldera Hezkuntzako kontseilariak hartutako neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2019ko irailaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioko foru parlamentari María Solana Arana andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernu Hezkuntzako kontseilariak irailaren 12ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Karguaz jabetu denez geroztik, Hezkuntzako kontseilariak zer neurri hartu du Nafarroako irakaskuntza publikoan eta itunpekoan Skolae programa bultzatzeko eta garatzeko?

Iruñean, 2019ko irailaren 5ean

Foru parlamentaria: María Roncesvalles Solana Arana

Galdera, jakiteko zer neurri hartuko dituen Nafarroako Gobernuak ikastetxe erlijiosoetan sexu-gehiegikeriagatik aurkeztutako salaketak direla-eta.

MIKEL BUIL GARCÍA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko irailaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Buil García jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, jakitekoa zer neurri hartuko dituen Nafarroako Gobernuak ikastetxe erlijiosotan sexu-gehiegikeriagatik aurkeztutako salaketak direla-eta.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2019ko irailaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteko Mikel Buil García, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak lehendakariak hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Gure erkidegoko 6 ikastetxe erlijiosotan sexu-gehiegikeriagatik 18 salaketa baino gehiago aurkeztu direla ikusita, eta Iruñeko Apezpikutzak eta kongregazio gehienek erantzunik eman ez dutela ikusita,

Zer neurri hartuko duzu kontuan hartuta auzi honek Gobernuak hainbat arlori –Herritarrekiko Harremani, Hezkuntzari, Justiziari edo Adingabearen Babesari– eragiten diola?

Iruñean, 2019ko irailaren 6an

Foru parlamentaria: Mikel Buil García

Galdera, Zidakos ibaiaren uztailaren 8ko uraldiak kaltetutako herriak hondamendi eremu deklaratzeko egiten ari diren zuzemenei buruzkoa.

UXUE BARKOS BERRUEZO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko irailaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Uxue Barkos Berruezo andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Zidakos ibaiaren uztailaren 8ko uraldiak kaltetutako herriak hondamendi eremu deklaratzeko egiten ari diren zuzemenei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2019ko irailaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioaren eledun Uxue Barkos Berruezo, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak lehendakariak ahoz erantzun dezan:

Foru Gobernua zer zuzemen ari da egiten Gobernu zentralaren aitzinean, Zidakos ibaiaren uztailaren 8ko uraldiak kaltetutako herriak hondamendi eremu deklaratzeko?

Iruñean, 2019ko irailaren 9an

Foru parlamentaria: Uxue Barkos Berruezo

Galdera, jakiteko zer ildo lehenetsiko diren zerga eta aurrekontu arloetan.

BAKARTXO RUIZ JASO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko irailaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, jakitekoa zer ildo lehenetsiko diren zerga eta aurrekontu arloetan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2019ko irailaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Bakartxo Ruiz Jasok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko lehendakari María Chivite Navascuésék Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Kontuan izanda legegintzarako akordioaren arabera baliabide publikoak "efizientziaz gastatzea" izanen dela aurrekontu politikaren oinarrietako bat, egoera ekonomikoa are konplikatuagoa izanen dela aurreikusten den testuinguru batean, Nafarroako Gobernuak zer ildo lehenetsiko du zerga eta aurrekontu arloetan?

Iruñean, 2019ko irailaren 9an

Foru parlamentaria: Bakartxo Ruiz Jaso

Galdera, Espainiako errege-erreginak Vianako Printzea Kulturaren Saria ematera gonbidatzeari buruzkoa.

JOSÉ JAVIER ESPARZA ABAURREA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko irailaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Javier Esparza Abaurrea jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Espainiako errege-erreginak Vianako Printzea Kulturaren Saria ematera gonbidatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2019ko irailaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen José Javier Esparza Abaurrea jaunak gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Aurreko legegintzaldiko gobernu nazionalistaren jarrera zuzendu eta Espainiako errege-erreginak berriz ere gonbidatuko al dituzu Vianako Printzea Kulturaren Saria ematera?

Iruñean, 2019ko irailaren 9an

Foru parlamentaria: José Javier Esparza Abaurrea

Galdera, irakaskuntza publikoaren kalitatea hobetzeko ituneko baldintzak betetzeari buruzkoa.

MARISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko irailaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Marisa De Simón Caballero andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, irakaskuntza publikoaren kalitatea hobetzeko ituneko baldintzak betetzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2019ko irailaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra Talde Mistoko parlamentari Marisa de Simón Caballerok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau egin du, hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzuteko:

Barañaingo Eulza Ikastetxe Publikoak 27 matrikula izan ditu 2019-2020 ikasturterako Haur Hezkuntzako lehen mailan. Eskabideetako bat desgaitasuna duen ikasle batena da, zeina baremoari jarraikiz onartua izan baita. Ikasle horrek, ratioari begira, 2ren balioa du.

Hezkuntza Departamentuak 26ko ratio duen ikasgela bakarra dauka baimenduta une honetan, eta ikastetxe horretan onartu gabe utzi ditu 2 eskabide.

Gehieneko ratioa 25 ikaslekoa da, unitate eta maila bakoitzeko.

Hezkuntza Departamentuak ba al du asmorik Nafarroan irakaskuntza publikoaren kalitatea hobetzeko ituneko baldintzak betetzeko, ikasleek Eulza IPan eskolatzeko duten eskubidea errespetatzeko eta, hortaz, ikastetxe horretarako aurreikusita zeuden 3 urteko bi ikasgelak mantentzeko eta aurreinskripzio guztiak onartzeko?

Iruñean, 2019ko irailaren 9an

Foru parlamentaria: Marisa de Simón Caballero